
Donostiako Herritar Foroa

PROZESUAREN KAIERA

OSTI



Orto

Donostiako Herritar Foroa

PROZESUAREN KAIERA

Donostiako Herritar Foroa, 2015eko urtarrilean jarri zen martxan Donostiako Udalaren ekimenez.

Bizikidetzaren aldeko ekimen hau modu autonomoan garatu bada ere, urte hauetan Udaleko talde politiko guztien babesa izan du, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako “Bizikidetzaz lantzen” programaren baitan garatu da. Foroa ibilbide pertsonal, sozial eta ideologiko desberdinek dituzten bederatzi herritarrek osatu dute.

Bost urteetan zehar foroak elkarriketa prozesu zintzo eta sakona garatu du. Helburu nagusia anitzen arteko bizikidetzaren eraikuntzan ekarpen esanguratsu bat egitea izan da. Helburu hori lortze aldera egindako ibilbideak: elkar entzun, onartu eta aitortzea; iraganari eta orainari ikuspegi zintzo eta kritiko batetik begiratzea; elkarriketaren kultura demokratikoan sakontzea eta ikasitakoa gizarteratzea suposatu ditu.

Egindako ibilbidea honako dokumentuetan jasota gelditu da:

- Foroaren ibilbidea. 2015Eko urtarrila-2019ko apirila
- Foroaren barne narratiba
- Foroaren ondorioak. 2019Ko apirila
- Bidaide. Bidea egiten lagundu diguna. Prozesuaren metodologiaren sistematizazioa. 2021ko maiatza
- “Bidea eraikitzen” dokumentala. Aizpea Goenagak zuzendutakoa

Foroak egindako lana eta esperientzia bere osotasunean ulertzeko, osagai hauek guztiek, bai eta bileretan sorturiko papelografo eta mapa mentalak, kontuan hartu behar dira.

Kaiera honen helburua ez da izan egin beharreko bide bat adieraztea, beste prozesuentzat lagungarria eta inspiratzailea izatea baizik.

Foroko kideak

Felix Arrieta Frutos, David de Miguel Les, Pedro Echeverria Ezcurdia, Aran Erasun Urtelaieta, Koro Garmendia Galbete, Aizpea Goenaga Mendiola, Conchi Neira García, Sabino Ormazabal Elola, Sabin Zubiri Rey .

Prozesuaren erraztatzailea: Aitziber Blanco Goikoetxea



Aurkibidea

Foroaren ibilbidea - 2015eko urtarrila – 2020ko otsaila	7
Foroaren barne narratiba.....	13
Ondorioak - 2019ko apirila	19
Prozesuaren metodologiaren sistematizazioa - 2021eko maiatza	25
Bidea eraikitzen - Dokumentala.....	37

Foroaren ibilbidea

2015EKO URTARRILA - 2020KO OTSAILA

Foroaren ibilbidea

2015eko urtarrila - 2020ko otsaila

2015eko urtarrilaren 14an Donostiako foroaren lehen bilera egin zen Goikoa jauregian. Foroa Donostiako Udalaren ekimenez jarri zen abian, Udalean ordezkaritza zuten alderdi politiko gehienetako ordezkarien arteko elkarrizketen ondoren. Beraz, foroa osatzen duten pertsonak elkarrizketa esparru politiko horretan izendatuak izan ziren, baina ez dituzte alderdi politikoak ordezkatzeko, eta foroak eremu politikoarekiko funtzionamendu autonomia eta independentea du.

Lehen hiru hilabeteetan, taldearen hasierako osaera zabaldu zen, eta lan esparrua, helburu partekatuak, hitz egin ahal izateko beharrezkoak diren segurtasun baldintzak eta jorratu beharreko gaiak finkatu ziren: zer gertatu den, nondik gatozen, nora goazen, nola iritsi garen honaino, jasandako zauriak, biktimak, aldaketa adibideen bilaketa... Goikoa jauregian izandako lehenengo bileraren ondoren, hurrengo saioak Etxepare Institutuan egin ziren eta, azken urteetan, Deustuko Unibertsitatean.

Urte horretako martxoan, elkarbanatu genituen indarkeria eta gatazkaren inguruko gure historia pertsonalak. Partekatu genituen markatu gaituzten gertakari edo gertaerak, gure ibilbide pertsonalaz hitz egiten duen hori, eta gure nortasuna eraikitzeko baliatutakoak.

2015eko ekainean, foroak lehen balantzea egin zuen; izan ere, eratu zenean bost bilera egitea aurreikusi baitzen, nahiz eta prozesu izaera izango zuen bide ezezagun bat hasteko ideia partekatu. Kontakizunaren gaiari buruzko hurbilketak egin ziren: zergatik gertatu da gertatu dena?... Urte hartako udal-hauteskundeak igaro ondoren, berriaz ere harremanetan jarri ginen udal berriarekin, taldeak bertan ordezkaturako indar politikoaren babesa izaten jarraitzen ote zuen jakiteko. Udalean ordezkaritza zuten indar politiko guztien erantzun positiboak foroaren babesa eta autonomia berretsi zituen. Garai hartan, taldeko kide guztiak elkartzeko zailtasunak nabarmentzen dira, eta horrek prozesuarekiko zalantzak eta nolabaiteko higadura eragin zituen. Abenduan, Bizikidetza Herritar Foroan topaketa bat egin zen Tolosan, eta Azpeitia, Tolosa, Lasarte-Oria, Elgoibar eta Hernaniko foroekin harremanetan jartzeko aukera eman zigun, bai eta prozesu honetan bakarrik ez ginela ikusteko aukera eman ere.

2016ko otsailetik aurrera, kontakizun kolektibo batera hurbiltzeko modua bilatzen aritu ginen. Denbora ardatzarekin esperimendu genuen, indarkeria adierazpen desberdinetara eta diren nahiz bizi ditugun gatazketara hurbildu ginen, isilarazitako edo ukatutako hura izendatzen saiatu ginen, markatu gaituzten “gertaerei” izena ematea bilatu genuen. Gatazkak kudeatzeko moduez hitz egin genuen, horiei heltzeko modu berriak bilatzeaz. Nola bilatu espazio komunak, garenari uko egin gabe, baina norberarena inposatu gabe. Norberaren kontakizuna egiterakoan hainbat geruza identifikatzen joan ginen: pertsonala/bizipenezkoa, soziala eta politikoa/ideologikoa. Gure bizitzaren soinu banda berreskuratu genuen, markatu gaituzten abestien bidez, eta horiek gure historiaren pasarte batzuk kontatzeko baliatu genituen. Pixkanaka, papelografoak osatzen joan ginen, eta haietatik ondorio batzuk ateratzen saiatu ginen. Eta, noski, papelografoak pilatzen joan ziren.

2016ko uztailean, “Trantsizio aldi” batean sartu ginen. Bost edo sei hilean behin, lortutakoaren balantzea egiten genuen, prozesuaren zentzua bilatuz. Hainbat arrazoi-rengatik taldea utzi zuten pertsonen absentsien pisu metatua ikusita, taldearen aniztasuna zabaltzeko beharri heldu genion. Horrek garatzen ari ginen bizikidetza prozesua esperientzia aberatsagoa eta egiazkoagoa izaten lagunduko zuela sentitzen genuen.

Horrela, foroari aukera berri bat ematea erabaki genuen, eta horretarako taldea osatzea ezinbestekoa zen.

Aurreko urteko udal hauteskundearen ondoren, taldeak indar politiko guztien babesa lortu zuen –horietako bat lehen aldiz sartu zen Udalean–, eta, babes horrek taldean bi kide berri sartzea suposatu zuen. Gauzak horrela, taldea ziklo bat itxi eta beste bat hasteko prestatu zen. Kide berriak iritsi bitartean, gure historiako zenbait pasarte hobeto ulertzeko elkarriketa ziklo bat hastea erabaki zen. Urte horretako urrian, azken hila beteetan izandako elkarriketen balantzea egin genuen. Topaketen zintzotasuna eta errespetua positiboki baloratu arren, topaketa horiek foroako zenbait kideengan eragin emozional handia eta higadura eragin zutela jabetu ginen.

2017ko urtarrilean, foroaren ziklo berriari hasiera eman zitzaion, eta urtebete iraungo zuela aurreikusi zen. Lehen bileretan helburu partekatuak eta lan esparrua finkatu ziren; hala ere, zeregin hori ez zen erraza izan, taldeko pertsona batzuen egoera pertsonaletatik eratorritako bertaratze arazoak zirela eta. Foroako kide gehienek jada bi urte zeramatzen biltzen, eta horrek luzatzen den lanketa batek ekartzen duen nekea eragiten zuen. Azkenik, martxoan, prozesuan nortzuk jarraitzen genuen argitzea lortu genuen, eta taldea bederatzi lagunez osatua gelditu zen, zeinak, gure ikuspegitik, gizartearen bizi ibilbide eta ibilbide ideologiko oso esanguratsuak ordezkatzeko dituzten.

Talde berrituak ezarritako helburuen artean honako hauek daude:

1. iraganari buruzko ondorio partekatuak lortzeko gai izatea, eta, horretarako, honako hau planteatzen dugu: gure biografia pertsonalak segurtasun eta konfiantza giro batean partekatzea, ikasitakoa berreskuratzea, batzen gaituena identifikatzea eta partekatzen ez duguna ezagutzea eta ulertzea.
2. erreferentzia berriak sortzen lagunduko duten gakoak identifikatzen saiatzea, pistak emango dizkigun “txuletario” bat eraikitzea.
3. taldearen esperientzia eta ondorioak ezagutaraztea.

2017ko ekaina eta urria bitartean, “Gure bizitza istorioak” partekatu genituen: modu esanguratsuan eragin ziguten gertakari edo uneak; hain zuen, gure begiratzeko, hitz egiteko eta entzuteko modua baldintzatu dutenak. Horretarako, lau saio baliatu genituen, horietan pertsona bakoitzak aukera izan zuen hitz egiteko eta entzuna izateko. Hitz egindakoaren zati bat papelografo batzuetan jaso genuen, erreferentzia ardatz gisa denbora lerroa erabiliz. Kontatzen hasteko garaia bakoitzak bere biografiari zentzua emateko garrantzitsutzat jo duena izan da.

Fase hori amaitu ondoren, 2017ko urrian, lan azpitalde bat eratzea erabaki genuen, taldeak ezarritako “iraganeko ondorio partekatueta iristea” lehen helburua betetzeko. Talde hau saiatu zen papelografoetan jasotakoa euskarri digitalen batean islatzeko modua bilatzen. Abenduan, word dokumentuak partekatu ziren foroan, papelografoetan jasotako guztia transkribatuta, taldekide bakoitzak esandakoa berrikusteko edo zuzentzeko, eta horrela jasota gera zedin.

2018ko otsailean, mapa mental batzuk aurkeztu ziren (kontzeptuak, ideiak, emozioak diagrama batean islatuta), word dokumentuetan jasotakoa modu bisualean islatzeko. Hurrengo bilerak, 2018ko udara arte, baliatu genituen mapetan jasotako biografiak errepasatu eta osatzeko.

Aldi berean, 2017ko uda eta 2018ko apirila bitartean, Udalak iritzia eskatu zion foroari Memoriaren Egunean, azaroak 10ean, egin beharreko ekimen motei buruz. Azkenik, eta gauzatu ez ziren zenbait proposamen bidali ondoren, aukera hori Udaleko ordezkari politikoekin harremana berreskuratze baliatu zen. Ordezkariek foroari Giza Eskubi-

deen Batzordean parte hartzeko gonbita luzatu zioten, beti ere, foro kideek horren egokitasuna ikusiko balute.

2018ko urtarrilean, foroko pertsona batzuek Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako topaketan parte hartu zuten. Bertan, beste herritarren foro batzuetako kideek parte hartu zuten, eta aukera eman zen prozesu bakoitzeko esperientziak partekatze-ko nahiz ikaskuntzak ateratzeko. Urte bereko maiatzean, mapa mentalen zuzenketa amaitu zen, eta ondorioak ateratzeko fasea hasi zen. Horretarako, galdera batzuei erantzutea proposatu zen, gertatutako guztiak gudan izan dituen eraginak ateratzeko; hau da, bizi izandako guztiak eragindako emozioak, gogoetak eta ekintzak. Egindako bidearen ondorioak ateratzeko fase honetan, taldeko pertsona batzuek eskatu zuten iraganaren balorazio etiko partekatua egin ahal izatea, egindako bideari zentzua emateko modu gisa. Azkenik, talde bezala onartu genuen planteatutako galderei erantzuteko metodoarekin jarraitzea eta, behin emaitzak ikusita, balorazio etikoa egitearen beharra berriz aztertzea.

2018ko ekainean, egindako galderei emandako erantzunak partekatu genituen taldean, eta urrian aurkeztutako laburpen zirriborro batean jaso genituen. Hurrengo bileretan, zirriborroa landu genuen eta ekarpenak egin genituen. 2018ko azaroko bileran dokumentua osatu genuen, buru mapetan mapetan nabarmendutako sentimenduak, gogoetak eta jarrerak jasoz. Azkenik, foroak lau bilera egin zituen ondorioen fase horretan, aurreikusi baino bi gehiago; nekea handia bazen ere, prozesuari amaiera on bat emateko beharra partekatua baitzen. 2018ko maiatzean, hasitako lanaren emaitza gisa, hiru dokumentu sortu ziren:

1. deskriptiboki, foroaren lau urteko ibilbidea jaso nahi duen dokumentu hau.
2. “Foroaren barne narratiba” izeneko dokumentua, buru mapetan jasotako gure bizi ibilbideak partekatze fasean izandako esperientzia jaso nahi duena.
3. “Ondorioak” jasotzen dituen dokumentua.

Ondorioen faseari heltzean, –eta, beraz, aipatutako dokumentua lantzean–, alde batetik, garrantzia izan du etorkizuneko bizikidetzaren zutabeak finkatzen dituen “txuletarior” bat edo ikaskuntza zerrenda bat ateratzeak, eta beste aldetik, zutabe horiek finkatzea bizi izandakoa ikuspegi kritiko batetik begiratzea suposatuko zuen oinarri batean. Hala ondorioztatu zen gaiari egindako lehen hurbilketetatik. Zutabeei buruzko adostasuna erraza izan bada ere, nahiz eta ziur asko gehiago garatu litezkeela uste izan, lan zailena zutabeak finkatzeko oinarriak ezartzea izan da. Azkenik, dokumentuak oinarri hori “autokritika ariketa” bat bezala irudikatu du. Taldeko kide batzuentzat, oinarri horrek maila etikoan ekarri duen aurrera pausua onartuta ere, iraganaren balorazio etiko partekatu batean oinarritu izan balitz, oinarria sendoagoa izango zen. Azken eskaera hau taldeko pertsona batzuek une desberdinetan azaldu izan dute.

Itxiera fase horretan izandako elkarriketetan, jarraipena eman zaio elkarrengana hurbiltzeko eta elkar ulertzeko hasitako bideari, taldekide bakoitzaren behar pertsonalak azaldu dira, eta elkar ezagutzatik elkarrekin jorratu genezakeenari heldu zaio.

Ez zaio berariaz heldu iraganean gertatutakoaren balorazio etikoari, baina, autokritika ariketa zintzoen bidez, egiaztatu da pertsona bakoitzak zer balorazio egin dituen egon den tokiei buruz eta zer erantzukizun izan duen sortutako kaltearen gainean. Ezkutatu eta justifikatu gabe, nor bere neurrian hartu du bere gain, oinazeari eta sufrimenduari egindako ekarpena, taldean partekatutako narratiba pertsonal guztien bidez.

Azkenik, nabarmendu behar da itxiera fase horrek ekarri duela urte luzeetan bizitako prozesua folio gutxi batzuetara murrizteko lan zailari ekitea, eta ebaluatzea –ia ohar-

kabea— gure parte hartzea bultzatu zuten behar eta itxaropen pertsonalak, egindako ahalegina, bakoitzak egin duena eta talde gisa gaur lortu duguna. Horri gehitu behar zaio, oso elkarriketa eta entzute ariketa zorrotza egin ondoren, taldekide guztiek metatutako neke sakona. Horrek ere eragin du taldekide batzuk prozesua uzten joan izana, ez egote horiek berriz ere foro kideengan pisu handia izan dute.

Fase horri ekiteko, bi lan zirriborro izan ditugu, eta horietako bat lantalde txiki batek egin du. Lantalde horri zeregin hori eskuordetu zitzaion, eta hiru bilera egin dira.

Behin fase hau amaituta, eta hauteskundeetan atarian, foroak erabaki zuen landutako hiru dokumentuak Udal berria osatu arte gordetzea (foroaren ibilbidea, foroaren barne narratiba eta ondorioak). Bien bitartean, azken hilabeteetan foroaren ibilbidea jasoko zuen dokumentala grabatzeari ekin zitzaion, parte hartzaile bakoitzari ahotsa emanez.

2020ko otsailaren 3an egindako azken bileran, foroko bederatzi kideek adostu zuten zer urrats egin behar ziren bizi izandako prozesua publiko egiteko. Honako hauek izan ziren adostutako urratsak: Udaleko Giza Eskubideen Batzordearen aurrean agerraldia, ekarpen pedagogiko gisa egindako hiru dokumentuen zabal-kundea, “Bidea eraikitzen” dokumentalaren aurkezpen publikoa, prozesuaren metodologia sistematizatzea beste foroentzako ekarpen gisa, landutako mapa mentalak berreskuratzea —betiere informazio pribatuuegia ez argitzen saiatuz— eta itxiera afaria egitea.

Gainera, bilera hori baliatu zen dokumentalaren azken grabazioa egiteko. Bertan, foroko kide bakoitzak lehen pertsonan kontatu du prozesuak ekarri duena.

Taldearen osaera

Horrelako prozesuek dakartzaten zailtasunak eta aukerak ulertzeko, bai eta benetako bizikidetzat gauzatzeko duten izaera ulertzeko ere, funtsezko elementua izan da ahalik eta ibilbide zabalena bermatzea, bai bizi ibilbideari eta genero nahiz belaunaldien ibilbideari dagokionez, baita ibilbide soziologiko zein ideologikoei dagokienez ere.

Taldekideen bidez ordezkaturako aniztasunari esker, bizipen eta diskurtso oso desberdinak eta antagonikoak ere izan dira taldean. Denak ez dira, hala ere, neurri berean ordezkatuak izan; batzuk beste batzuk baino minoritarioagoak zirela ikusi baita, eta horrek zenbaitetan ahalegin gehigarria ekarri die pertsona horiei.

Foroa osatu duten pertsonak beti modu pertsonalean parte hartu dute, eta ez talde baten ordezkari gisa. Hala ere, zenbaitek adierazi da “ez dela beti erraza izan pertsona ikustea, eta ez berak sinbolizatzen zuen mundua edo ikuspegi ideologikoa”.

Foroa osatu duten bederatzi pertsonak honakoak izan dira: Felix Arrieta Frutos, David de Miguel Les, Pedro Echeverria Ezcurdia, Aran Erasun Urtelaieta, Koro Garmendia Galbete, Aizpea Goenaga Mendiola, Conchi Neira García, Sabino Ormazabal Elola eta Sabin Zubiri Rey.

Prozesuaren beste elementu batzuk

Prozesu osoan izandako beste elementu batzuk nabarmendu behar dira: alde bate-tik, foroko kideok urte hauetan partekatu ditugun afariak, modu lasaiagoan hitz egiteko aukera eman digutenak; bestalde, txandaka taldekideek jateko zerbitu ekarri dute bile-

retara eta tentsioa arindu da. Halaber, azpimarratu da garrantzitsua izan dela bost urte hauetan prozesua koordinatu eta erraztu duen pertsona bat izatea taldeak, pertsona hori Aitziber Blanco Goikoetxea izan da.

Falta izan zaiguna

Entzuteko denbora gehiago izatea falta izan zaigu. Eta, batez ere, ikuspegi zabala goa izatea, bai historikoki, bai egoerari dagokionez, gizarte espektro handiagoa kontuan hartuta. Gertakariei eta indarkeriazko gertakariei begiratu diegu, baina ez dugu aztertu nola kokatzen ziren gertakari horiek hedabideen mailan, lehentasun mailan, gizarte gatazkan edo kultura gatazkan. Halaber, ez ditugu aztertu ideologia, jarrera edo zenbait gertakari ulertzeko modua baldintzatzen duten diskurtso sozialak eta zeharkakoak, ezta gure jarrera baldintzatzen duen intoxikazio sozial informatiboa ere.

Gertatutakoarekin zerikusia duten beste eragile batzuen testigantza eta biktimen ikuspegia ezagutzea falta izan da. Azkenik, aipatzen da pertsona gazteagoen falta sumatu dela, gertatutakoari buruz duten ikuspegia ezagutzea, bai eta jarrera muturrekoak eta justifikatzaileagoak dituzten pertsonak ere.

Amaitzeko, kezka eragiten dute, batetik, nola helarazi prozesuko urte hauetan bizitakoa eta sentitutakoa, hiru dokumentuetan jasota gelditu dena -taldeak lortutako hori- bizikidetzarako ekarpen baliotsua izan daitekeen ala ez, eta bestetik, bai eta kanpotik eta logika politikotik egin daitezkeen irakurketa interesatuak ere.

Foroaren barne narratiba

Foroaren barne narratiba

Narratiba honek foroa osatzen dugun pertsonen 2017ko ekainean hasitako zeregi-netik ateratako gogoetak laburbildu nahi ditu, eta honako helburu honi erantzuten dio: iraganeko ondorio partekatuetara iristeko gai izatea, eta, horretarako, gure biografia pertsonalak segurtasun eta konfiantza giroan partekatzea, ikasitakoa berreskuratzea, batzen gaituena identifikatzea eta partekatzen ez duguna ezagutzea eta ulertzea. Hori gauzatzeko, oinarritzat hartu ditugu mapa mentaletan jasotako gure biografia eta foro-ko kideen bizipenak, zeinak emozioak eta gogoetak agerian jartzen lagundu diguten. Dokumentu honen helburua ez da adostasun dokumentu bat izatea, baizik eta bizi izan-dako guztiari eta egindako hausnarketei leku bat ematea.

Iraganari aurre egiteko, taldeko kide bakoitzak gure bizi biografia partekatu dugu, markatu gaituzten gertaerak nabarmenduz. Iraganaz hitz egin dugunean, abiatu gara diktadura frankistatik, jarraitu dugu trantsiziotik, demokrazia ezartzetik eta gaur egu-nera iritsi gara. Indarkeriaz iraganean hitz egin dugu, baina badira horrek kezkatzen dituenak, oraindik ere orainaldian hitz egin beharko genukeela uste baitute. Bilatu ditu-gu hautatutako uneek taldeko kide bakoitzean sortu dituzten inpaktu emozionalak eta hausnarketak; sentimenduak, ezkututzen zituzten beharrak, une bakoitzeko gogoetak eta jarrerak.

Gainditu nahi izan ditugu lubaki posizionamenduak nahiz azterketa ideologikoa, eta gizatasunera iritsi. Ideologikoa dena gaingitu eta gizakiarengana iristek, batzuetan, geu-re kontraesanak azalerazi ditu. Gutako bakoitza muga gara, geure espiritu kritikoa dugu. Mundu ideologiko edo politiko baten parte izatea talde joko bat da, zeinak suposatzen dizun, pertsona gisa, kontraesanak dakartzaten zenbait gauza onartzea. Gutako askok eta askok talderen batean jokatu dugu, eta hortik gizartean eragin nahi izan dugu, nor-berarena defendatuz. Talde hau ere gizartean eragiteko motibazioa duen taldea izan da. Eta horrek ekarri du entzutea, amore ematea eta mihia hozkatzea. Bada batzen gaituen zerbait: borondatea; bizikidetzarako oinarriak zintzotasunez eraikitzeke jarrera.

1. Taldekideen iraganari buruzko gogoetak

Norberaren bizipenak kontatzean, urte luzeetan nola sentitu garen aipatu dugu, eta honako sentimendu hauek gailentzen dira: ezintasuna, ulertezintasuna, amorrua, mina eta haserrea. Horiekin batera, kasu gehienetan nagusitu dira: bidegabearen aurka bo-rrokatzeke beharra, printzipio batzuk defendatzeko beharra, askatasunez adierazi ahal izateke beharra, aldatzeko beharra, norbera izan ahal izateke beharra eta konpromisoa.

1.1. Isilunez aritu gara

Egiaztatu dugu “eurek” eta “gu” dinamikak markatutako testuinguru polarizatu bat dagoela. Testuinguru hori, askotan, mugatzailea eta itogarria izan da, batez ere, kon-tatutako zenbait indarkeria gertakarien aurrean jarrerak hartzeko orduan. Bizitako pro-zesuari esker, ikuspegi kritiko eta zintzo batetik honakoak aztertu eta onartu ahal izan ditugu: gutako bakoitzarengan une bakoitzean indarra zuen hori, nondik erantzuten ge-nion gertatzen zenari eta horrek maila pertsonalean eragiten ziguna.

Testuinguru horretan, kasu batzuetan, adierazteke beldurra nagusitu da eta horrek gure munduari ekar diezaiokeena. Hau da, gure keinuak edo hitzak modu interesatuan

interpretatzeko edo “nireen” aurka erabiltzeko beldurra. Honako hau esplizitatzen da, batez ere, “pentsatzen dugun guztia publikoki ezin esateak” sortu duen ezintasuna aipatzean, indarkeriazko gertakarien jatorria ingurune hurbilean egon denean.

Gure jarreraren adierazpen publikoari diogun beldurraz gain, pertsona batzuek adierazten dute barne gatazkek eta bizipenek ere zaildu egin dutela ideiak, afektuak eta “bestearekiko” enpatia askatasunez kudeatzea. Jasandako sufrimenduarekiko eta bigabekeriekiko haserre eta amorru sentimenduek koraza bat ere sortu dute. Horrek eragin ditu defentsa posizionamendu batetik eta norberaren biziraupenetik abiatutako axolagabekeriak, isiltasunezko eta, batzuetan, erasotzeko jarrerak.

Beste batzuetan, hurbilketa hori nola egin ez jakiteak, nola erantzun ez jakiteak, hurbilketa ondo ulertuko ote zen edo lagundu ote zezakeen pentsatzeak eragin du sufrimenduaren aurreko isiltasuna eta immobilismoa. Batzuetan, kaltea eragiteko beldurrak ere gelditu egin gaitu. Batzuek “trakeskeria emozional” bezala izendatu dute.

Batzuetan, nekeak eta ezintasunak geure uhartean sartzera eramán gaituzte. Egoera anormal bat normalizatzerá, gertakari larri batzuetatik nolabaiteko distantzia hartuz eta minetik babestuz.

Hala ere, taldeko pertsona guztiek sentitzen dute ez dutela behar adina egin beste pertsonen minarekiko hurbiltasuna adierazteko orduan, bizi ibilbidearen arabera intentsitate desberdinarekin bada ere. Narratibetan, eman gabeko besarkadak, egin gabeko deiak, esan gabeko hitzak nabarmentzen dira, gaur egun oraindik gure kontzientzietan bizirik direnak.

Horrek guztiak asaldura, larritasun, erru eta erantzukizun sentimenduak elikatu ditu, guztiz bakean ez egotea eraginez.

1.2. Isiltasuna haustek ekarri duena

Bestalde, batzuk poloetatik kanpo espazioak bilatzen saiatu dira, indarkeriaren aurrean jarrera argiak erakutsiz edo desberdinen arteko topaguneak bilatuz, eta horrek ekidistante ezizena ekarri die. Lagun horiek partekatu dute emandako pausuak eragin dien bakardade sentimendua. Publikoki adierazteak esposizioa ekarri du, tentsio nahiz bakardade handiko egoerak bizitzea, eta egoera horiek neke handia eragin dute. Hala ere, onartzen dute batzuetan harriiduraz deskubritzen zutela, isildu ziren horietako batzuk, gero, modu pribatuan hurbiltzen zitzaiykiela. Nahiz eta une batzuetan kontrakarrean joatea zaila izan, batzuek onartzen dute urrats bat aurrera ematea konbentzimendu pertsonal eta etikoagatik egin beharrekoa zela: “Hobeto ari nintzen egiten, ez egiten baino”.

Testuinguru hain polarizatuan, behar besteko elkartasun adierazpenak egin ote diren edo beste errealitate batzuk ulertzeko beste aldera pasatu ote garen galdetzean, ikuspegi desberdinak agertu dira. Zenbaiten ustez, enpatia keinuak oso gutxi izan dira eta denbora asko behar izan dute iristeko. Beste pertsona batzuen iritziz, aurrekoa onartuta, elkartasun adierazpenak eta laguntza esperientziak egon dira, manifestazioak edo kontzentrazioak egin dira, aurpegia emanez. Egoera zailetan idatzi, marraztu edo kantatu egin da: (Gladys, Ryan, Arregi, Yoyes, Imanol, Ibarrola...), jarrera kritikoak izan dira, behar bada ez nahi adina. Oro har, uste izan da zubiak eraikitzea edo norberarengandik urrunago dauden minei elkartasuna adieraztea pixkanakako prozesua izan dela. Hurbilketa, batzuetan, gehiago egin da ikuspegi arrazionalagotik, enpatiagatik baino, sinesmen etikoagoak bultzatua. Enpatia, bestearen onarpenetik eraikitzea, askoz beranduago iritsi den zerbait izan da.

2. Gure biografiak partekatzean bizitako prozesua

Bizi izan dugun prozesuak bestearengana hurbiltzea ekarri du. Taldekideen biografiak entzunda, saiatu gara haien lekuan jartzeko eta haien mina ulertzeko. Iraganaren orrialde osoa irakurtzeko beharra partekatu dugu, guztion artean etorkizun osasuntsua eraiki ahal izateko. Ikusi dugu ezinezkoa dela gertatutakoaren begirada bakarraz izatea, ez da erraza izan hori ulertzea eta, batez ere, bizitzea, baina aurrerapauso handia izan da.

Hitz egiten hastean konturatu gara taldea bera behar partekatu bat izan dela. Kontatzeko beharra zegoen; entzuna izateko; zer gertatu zaidan/zaigun ezagutzera emateko; ni/nire jendea/nireak trantze horietan non ziren ezagutarazteko; errespetuaren beharra, garenarekiko errespetua, sentitzen eta pentsatzen dugunarekiko errespetua; norberaren mina gaingintzeko gai izateko beharra, bestearen mina ikusi eta ukitu ahal izateko; baita beste pertsonen errealitatea eta mina ulertzeko beharra ere. Eta hori guztia ez da batere erraza izan, prozesu luzea izan da, bere gorabeherekin, neke handia sortu duena.

2.1. Elkar entzuteak ekarri duena

Bizipen eta ikuspegiak –batzuetan kontrajarriak– entzutea ez da erraza izan, nahiz eta kontziente izan ulertzeak ez dakarrela entzundako irakurketak edo posizionamenduak partekatzea.

Entzuteak dakar behar bezala ezagutu ez ditugun bizipenak eta errealitateak izan direla jabetzea, edo batzuetan kontuan hartu ezin izan ditugunak, edo kontutan hartu nahi izan ez ditugunak. Hori ondorioztatzen da beste kontakizunetan gehien hunkitu gaituenaz edo entzuteko zailena izan denaz galdetzean:

- Demokrazian ere indarkeria erabiltzea legitimotzat zergatik jo zuten pertsona batzuek.
- Ezker abertzalearen jarrera ETaren indarkeriaren aurrean.
- Estatu terrorismoa.
- Klandestinitatearen bizipena, zein mugatzailea izan den, bai maila pertsonalean, bai maila humanoan.
- Jende normala egitera iritsi den zer astakeria egitera iritsi daitekeen egiaztatzea.
- “Poloetatik” kanpoko espazio horri eutsi dioten pertsonen bizipena. Ulertezintasuna eta harridura eragin du espero denaren “gidalerroak ez jarraitzearen” ondorioak jasateak eta, kasu batzuetan, kartzelarekin ordaindu behar izateak.
- Entzuteak ekarri du ohartzea zenbateraino elikatu ahal izan dugun polarizazioa, defentsa posizionamenduetatik eta sektarioetatik abiatuta, norberaren amorrutik eta “bestearen” mehatxuaren eta erasoaren bizipenetik sortuak.
- Jasandako minak kontatzeko intentsitatea entzutea; duela urte batzuetako bizipenek zein biziak dirauten ikustea. Egiaztatzea mina ez dela soilik indarkeriazko gertaera jakin batzuegatik sortu, baizik eta gure haurtzaroko isiluneek, irainek edo gertaerek min sakona eragin dutela, gaur egun ere oso bizirik dagoena, taldeko pertsona batzuegan.

Zaila izan da urte beretan batzuen eta besteen bizipenak hain desberdinak izan direla entzutea; norberaren biografian funtsezkoak izandako gertaerak edo elementuak

besteen bizitzetan agertzen ez zirela edo pisu bera ez zutela egiaztatzea; gertakari berberak gutako bakoitzarengan sortu ahal izan dituzten ikuspegi eta interpretazio desberdinak; gertakari desberdinek eragindako sentimendu oso antzekoak izan arren, hori oso gutxi ezagutu dela egiaztatzea.

2.2. Hitz egiteak ekarri duena

Batzuetan, gutako bakoitzarengan arrasto sakona utzi duten bizitzako gertaerak partekatze beharrak edo aukerak ekarri du oso bizipen pribatuak zabaltzea eta partekatzea. Bizipen horiek gure bizi biografia markatu dute, eta zauri sakonak eragin dituzte; batzuetan, oso bizirik irauten dute, nahiz eta denbora asko igaro. Ez da erraza izan gertakari oso pertsonal batzuk ateratzea, esposizio horrek ekar diezagukeenaren beldurragatik, besteak zauritzeko beldurragatik edo zaurituak izatearen beldurragatik. Hortik egiaztatu dugu jasandako kaltearen aitortzaren beharra eta, hala badagokio, konpondua izatearena.

Elkarri entzuteak gertaera berak gutariko bakoitzarengan izan duen inpaktu desberdina egiaztatze aukera eman digu, eta zaila izan da konturatzea norberarentzat berebiziko garrantzia zuten gertaerek ez zutela tokirik taldeko beste kide batzuen narratibetan. Gainera, egiaztatu ahal izan dugu gertaera beraren aurrean oso leku desberdinetan edo antagonikoetan egon garela egoera batzuetan. Eta horrek ekarri du eragin handia izan duten uneak bizitzea oro har, bai eragindako pertsonengan, bai taldean bertan. Espazioak aukera eman digu gure beharrik sakonenak eskari zehatzetan esplizitatzeko, baita gure ustez min horren zati bat konpontzen lagun diezagukeena zuzenean interpelatuz ere. Alde batetik, egoera horrek mina, bakardadea eta bazterkeria eragin zituen interpelatutako pertsonarengan. Mina, taldeko gainerako kideei baino erantzukizun-maila handiagoa eskatzen zitzaioela sentitzeagatik; bazterketa, harekin espazio bera partekatzea zaila zela entzutean; eta bakardadea, taldean mundu minoritario bat irudikatzen zuela sentitzeagatik. Era berean, berariaz adierazitako eskariak ez zuela nahi zuen erantzuna jasotzen egiaztatzeak mina eta gogorik eza eragin zuen interpelaziogilearengan, bai eta bakardade-sentimendua ere, gainerako taldekideekin neurri berean partekatzen ez zelako.

Era berean, bizipen horrek desosegua eta ezintasuna eragin ditu taldekide batzuegan, eta kezka piztu du: gure ingurunearentzat onena lortzeko nola borrokatu dezakegu? Nola bideratu desadostasunak, hausturak eta desberdintasunak? Nola lagundu dezakegu gure oinazeak baretzen edo desaktibatzen?

Egiaztatu dugu memoriak, batzuetan, engainatu gaitzakeela edo gertaera batzuk modu selektiboan gorde ditzakeela, eta beste batzuk ez, autobabesaren ikuspegitik ulergarria dena.

Esandakoa egia dela aitortu arren, nolabait ere, geure burua zentsuratu egin dugu “alferrik” zauritzeko beldurragatik edo kezkagatik, eragin genezakeen zauriak aurrera pausu bat ekarriko ez zuelakoan. Era berean, batzuetan gai batzuk saihestu ditugula iruditzen zaigu, minik ez egiteagatik. Baina, agian, zailena lehen pertsonen bizitako gertaeren interpretazioak entzutea izan da eta, are gehiago, interpretazio horiek norberak egindakoaren guztiz kontrakoa izanik irakurketa bakarra bezala ulertua izan denean.

Nahiz eta taldeko kide bakar batek ere ez duen parte hartu alderdi politiko edo ideologia zehatz baten ordezkari gisa, gure kontakizun gehienek gure bizipenak eta ikuspegiak ez ezik, gure ingurune hurbilean partekatutakoak ere jasotzen zituzten. Horrek zera ekarri du, elkarrizketa maila pertsonalean eta humanoan izan bada ere, ez dela beti erraza izan pertsona eta bere mundua bereiztea, batez ere entzutean.

3. Foroaren esperientziak ekarri duena

Atal honetan, foroan bizitako prozesuaren inguruan taldekideek emandako testigantzak jasotzen dira. Foroa hainbat ahotsen elkargunea izan da, polifonia bat osatuz:

- “Nire ustez, ez dago formularik horrelako egoeretan jarduteko, askotan oso egunerokoak direnak, alegia, eguneroko errealitatera mugatzen diren egoerak; adiskideen, eskolaren eta lanaren errealitatera mugatzen diren horiek. Erne: baina nola ez dakigun bereizten ideologiaren eta gure ideiatatik borrokatzeko moduaren artean, eta ez dakigun kudeatzen menpekotasunean erortzeak eragiten digun beldurra, eta horrek ez dezan minik eragin, ezta amorrurik ere. Nola egin?”
- “Aro berri baten aurrean gaudela uste dut. Non premisa berri batetik diskurtsoak aldatu behar diren. Egin dugun lanak askotan erakutsi dit nola egin. Eta hori egiteko premia soziopolitiko eta kulturala berretsi dit: ildoak, jokabideak, konpromisoak, hezkuntza (etxea eta eskola), proiektuak, txuletarioak...”
- “Nire entzuteko modua aldatu egin da, eztabaida politikoan: parlamentua eta taberna, entzumenak eztabaida elikatzen du, ez da elkar ulertzeko baliatzen. Konbentzituia izateko inongo borondaterik gabe edo zure bizipen/ideien partzialtasuna benetakoak izatetik haratago, onartzeko borondaterik gabe.”
- “Beti ikasten duzu lekukotasunetatik, esamoldeetatik, erreakzioetatik... bai eta norberarengandik ere: nola jokatu duzun edo zer gaizki erantzun duzun edo zer iritzi duzun une horretan edo beste batean... Eta, mihia hozkatu ez duzun uneez oroitzen zara. Hotzean gogoratzen duzunean, erabilitako ñabardurez, tonuez eta keinuez jabetzen zara, zeinak edukiak eta mezuak adina edo gehiago eragiten diguten”.
- “Esperientzia pilotua izan da, hausnarketa pertsonalak ezberdinen artean trukatzeko”.
- “Informatiboa, analitikoa, katartikoa, emozionala izan da ...non errespetua, entzutea, hurbiltzea, zintzotasuna, hustea, konpromisoa, enpatia/sinpatia eta ahalgina funtsezkoak izan diren. Niretzat ikasgai bat izan da. Bira bat. Jasotakoa itzultzeko beharra”.
- “Foro hau esperimentu bat da, eta hortik ondorioak atera beharko lirateke, baina baita estrategiak eta etorkizunerako ildoak ere. Ez dago soilik zer bat, baita nola bat ere”.
- “Gure gizartea eraiki dituzten bideei eta begiradei buruzko ikaskuntza prozesu ordainezina izan da, zuri-beltzetik kolorera, Paco Ibañezetik Gatibura, uste dut elkarri begiratu diogula, elkar entzun dugula eta funtsezko gakoak jaso ditugula, bide hori eraikitzen eta igarotzen jarraitzeko”.
- “Desberdintasuna jasotzeko eta errespetatzeko espazioak nola eraiki ikastea izan da. Irekitzeko, entzuteko, onartzetik ulertzeko, emozio sorta elkarren ispilu izateko, eta norberaren eta besteen itzalak onartzeko. Bideari buruzko lezioa. Bizikidetzatza da nola bizi diren elkarrekin “zer” asko”.
- “Taldean bizi izandako elkartasun eta irekitasun maila ikusteak ilusioa sortzen du. Bizitakoak mikroaldaketak sortu dituela ikusten da eta, ziur asko, epe luzera, tximeleta efektua bezalako eragina izango dute”.

Ondorioak

2019KO APIRILA

Ondorioak

2019KO APIRILA

Lau urte hauetan egindako ibilbidearen ondorioei heltzeko, batetik, gure iraganari begiratu diogu, mina eragin diguna aitortuz eta horren ardura hartuz, eta bestetik, etorkizunari begiratu diogu, guk bizitakoa ez erreproduzitzearren balio diezagukeena antzemateko.

Partekatutako prozesuak egungo eta etorkizuneko bizikidetzak finkatzeko zutabe batzuk identifikatzen lagundu digu. Zutabe horiek, elkarriketa eta topaketa, gure arteko desberdintasunak kudeatzeko biderik etiko eta eraikitzaileena direla legitimatzen dute.

Zutabe horiek identifikatzeko orduan, une jakin batzuetan edo iraganeko hainbat gertakariaren aurrean hartutako posizioak izendatu ditugu, haietaz jabetu gara, aitortu ditugu eta horiek gudan eta besteengan eragin duenaren ardura hartu dugu. Jorrotutako bidea ezinbestekoa izan da autokritika ariketa zintzo hau egin ahal izateko; jakinda ere batzuetan irmoagoa izatea ere nahiko genukeela. Hala ere, egindako saiakerak eta hurbilketak eskertzen dira, asmoak ez epaitzeko borondatek abiatuta eta denbora gehiago behar dutenen erritmoak errespetatuz, betiere bakoitzaren ispiluan garen bezala ikusteari aurre eginez.

Argitu nahi dugu taldeko pertsona bakoitzaren bizipenak eta bizi-ibilbideak desberdinak izan direla; beraz, bakoitzak bere gain hartzen duen hori ez da guztiengan beti gauza bera edo neurri berean eman, baina ondorioak talde gisa jorratu ditugu. Horretarako, formula bat bilatzen saiatu gara: “elkarri entzutean onartzen dugu...”

A) Autokritika ariketa

Aurretiko azalpen bat: ariketa honen bidez ez dugu nahi izan inolako erantzukizunik sozializatu, erlatibizatu edo lausotu nahi. Bizi izan dugun sufrimendua asko izan dela jakinik, ez dugu parekatu, nahastu edo dena gauza bera izan dela esan nahi izan. Baina ez dugu bakoitzarengan pisua izan duen hori ezkutatu nahi izan.

Iraganera begiratzean, konturatu gara amorrua, gorrotoa, beldurra eta ezintasuna izan direla gure jarrera eta posizionamendu askoren eragile.

1. Isiltasuna eta sektarismoa.

Elkarri entzutean onartzen dugu, askotan beste alde batera begiratu dela, gauza batzuk esan direla eta beste batzuk ez, sufrimendu batzuekiko sentiberatasunik eza eta beste batzuekiko hurbiltasuna, gertakari bidegabe batzuekiko distantzia, eta ez beste batzuekiko.

Elkarri entzutean onartzen dugu, ez dela zintzotasunez begiratu, eta ez garelako beti gure esku zegoenaz arduratu. Aitzitik, gure jarreraren errua besteei botatzea gailendu da, “eta zu gehiago” baliatu dugu jarrera monolitiko eta sektarioak justifikatzeko aldera. Barrurantz gordez.

Elkarri entzutean onartzen dugu, bakoitzak bereak erdigunean jarri dituela eta beste errealtate batzuk ikusezin bihurtzera edo ukatzera iritsi dela.

Elkarri entzutean onartzen dugu, nor bere neurrian gure ekintzek edo ekintzarik ezak sortzen lagundu duten sufrimenduaren ardura hartu duela.

Elkarri entzutean onartzen dugu, ez dela norberaren oinazera hurbiltzen utzi, hurbilketa hau nahi zen moduan ematen ez zenean. Desberdin pentsatzen zutenak edo desberdintasun politikoak zituztenak baztertu egin dira.

Gure isiltasunak elikatu dituzten elementuak:

- Erreferentzia taldeei, babesa eskaintzen ziguten espazioei, begiratzean, gureei eman zaie lehentasuna: leialtasunari eta taldeko kide izateari. Nahiz eta dena ez partekatu, kritikoak izan edo jarrera jakin batzuekin lasai ez egon, traizioaren, iruzur egitearen pertzepzioa gailendu da, are gehiago erasoa pairatu izanaren pertzepzioa zegoenean. Era berean, beldurra zegoen desadostasunak erakutsi izana jarrera hori zuen multzoari erasotzeko erabiliko ote zuten.
- Ingurune sozialari begiratzean, manipulatuak edo erabiliak izateko beldurra izan da nagusi. Bi lekutan aldi berean egon ahal izateak sortzen zuen ulertezintasuna astuna izan da. Publikoki adierazteko beldurra.
- Geure buruari begiratzean, batzuetan ez dugu jakin zer egin edo nola egin.

2. Desberdin pentsatzen zuenaren kosifikazioa

Elkarri entzutean onartzen dugu, lubakiaren posizionamenduetatik ez dela beste pertsonaren sufrimendua ikusten utzi. Horretarako, desberdin pentsatzen edo jarduten zutenak "gauza bihurtu" egin dira, etsai gisa etiketatu dira, distantzia zeharkaezina irekiz, gizatasunaz deskonektatuz. Gauza bihurtze horretatik, pertsona normalek aurkariaren suntsipena edo jazarpena onartu ahal izan dute.

3. Indarkeriazko harremanen normalizazioa

Elkarri entzutean onartzen dugu, egon dela indarkeria mota bat, hain esplizitua edo bizitzarako edo osotasun fisikorako horren ondorio larriak izan ez dituen indarkeria mota bat, baina bai oso presente eta batzuetan normalizatua egon dena, eguneroko bizitzako geruza desberdinetan; gizarte bazterketako eta autobazterketako egoera esplizituak baldintzatu eta sortu dituen indarkeria.

4. Biktimei eta sufrimenduari elkartasun eta babesa adierazpenak

Elkarri entzutean onartzen dugu, eragile desberdinek eragindako indarkeri zuzenak gudan izandako inpaktu desberdinak: izan ETA, GAL, Estatuko Segurtasun Indarrak, talde parapolizialak, kale borroka...

Elkarri entzutean onartzen dugu, gizarteak, modu antolatuan edo jarrera pertsonalen bidez, ekimen zehatzekin, keinuekin, aurpegia emanez... garatu dituen elkartasun mugimenduak.

Elkarri entzutean onartzen dugu, mugimendu horiek bilakaera bat bizi izan dutela, indarkeria mota jakin batzuen gaitzespenetik hasita, giza eskubideen defentsara igaroz eta, geroago, biktimenganako hurbilketa enpatiko batera iritsi arte.

Elkarri entzutean onartzen ditugu begirada partzialak, bai eta kasu guztietan indarkeria sendotasun berarekin kalifikatzeko izandako zailtasunak zein biktima guztiak izendatzeko izandako zailtasunak.

B) Bizikidetzarako zutabe etikoak

Iraganeko akatsak berriro ez errepikatzeko, gure oraingo eta etorkizuneko bizikidetzaren oinarri etikoak finkatu behar ditugu. Talde gisa partekatutako bideak prozesuak burutzearen garrantzia egiaztatzen lagundu digu. Horretarako, ezinbestekoa da elkaritzeko eta elkar aitortzeko gune seguruak sortzea. Hona hemen prozesu horiek ezaugarritzen dituzten zutabeetako batzuk, bizikidetza finkatu ahal izateko:

- Bakoitzak nondik hitz egiten eta entzuten duen argituz gero, bakoitzak hitz egiten duenean duen eta entzuna denean egosten zaion erantzukizun-maila zehazten laguntzen du.
- Pertsona desberdinak garenez, hau da, bizi-ibilbide eta ibilbide ideologiko desberdinak ditugunez, entzuteko gaitasuna landu eta garatu behar ditugu.
- Gure ikuspegiak eta irakurketak transmititzeko orduan, zintzoak izan behar dugu geure buruarekin. Guretzat garrantzitsua eta ezinbestekoa denaz jabetzea eta argi transmititzea.
- Errespetuz hitz egitea eta desberdin denarekiko errespetuzko jarreratik entzutea, hortik eskaintzen zaiguna zaindu eta jasotzeko; eta isiltasuna apurtzen lagunduko duen giroa sortzea, askatasunez hitz egin daitekeela sentitzean.
- Bakoitzaren denborak errespetatzea.
- Gure sentimendu eta emozioei bide ematea, askotan gure jardunaren motorra baitira. Zama gisa bizi duguna eta mugitzen gaituena izendatzea: amorrua, gorrotoa, ezintasuna, mina. Horrek guztiak tokia zuela sentitzeak ere isiltasuna hausten lagundu du.
- Gertatzen dena onartzea, guztiari eta guztiei leku bat ematea. Gertaera bakoitzak bakoitzarengan izan duen garrantzia eta eragin duen inpaktua entzutea. Entzuten duguna sinetsi, asmoak ez epaitzen saiatuz.
- Gertaera edo une desberdinek eragindako emozioak partekatzeak leku komun bat aurkitzen laguntzen digu, besteak beste, bestearekin konektatzea, pertsona berreskuratzea, etsaiaren irudia deseraikitzea eta gizakia bere jarrera ideologikotatik haratago ikustea ahalbidetzen diguna.
- Elkarri aitortzea giza duintasunarekiko errespeturik handiena da.
- Konektatzean, bestearen egoera ezagutzen eta ulertzen dugu, haren minak ukitzen gaitu eta geure egiten dugu; hau da, haren minaren ardura eta nire jarduerak zein neurritan min hori eragiten lagundu duenaren ardura gure gain hartzen ditugu. Hortik, bestearen sufrimendua arintzen laguntzen duten urratsak eta jarrerak bila ditzakegu.
- Komunikazio-bide horizontalagoa eta erantzunkideagoa irekitzen da.
- Bestea ispilu gisa onartzen dugu, eta beraz, zeinean geure ziurtasunak zalantzan jartzen ausartzen gara, arrazoi osoa izateari uko egiten diogu, bestearen egia aitortu dezakegu eta zalantza egin, traizioa egiten ari garela sentitu gabe; izan ere, zalantzarik ez egiteak edo ez mugitzeak geure buruari egin diezaiokegun traizio handiena dela ulertzen baitugu.
- Kide izatearen kontzepzioa aldatzen du, zabaldu egiten du.
- Topaketa anitza denean eta zenbait baldintza partekaturekin, aldaketa-prozesu bihurtzen da. Aniztasunez bizi izan den prozesuak bizipenen eta ikuspuntuuen aniztasunean sakontzeko aukera ematen du, eta enpatia bidez eraldatzeko gaitasuna du.

Zutabe horien bidez marrazten dugun prozesuak gure amorruren eta ezintasunaren zati bat desaktibatzen lagun dezake, horiek jasotzen ditugulako eta eragindako mugimenduak ikusten ditugulako. Prozesu horren premisa entzuteko borondatea da, eta bere zaintza eta denbora behar ditu, horrek dakarren mobilizazio gaitasunagatik. Era berean, giza harremanak, hau da, orain arte ikusezin bihurtu, ukatu eta gutxietsi ere egin den eremu hori balioan jartzeko ariketa bat da.

Prozesuaren metodologiaren sistematizazioa

2021EKO MAIATZA

Bidaide.

Bidea egiten lagundu diguna.

Prozesuaren metodologiaren sistematizazioa

2021EKO MAIATZA

Sarrera

Donostiako Herritar Foroa, 2015eko urtarrilean jarri zen abian. Ibilbide pertsonal, sozial eta ideologiko desberdinak dituzten bederatzi herritarrek osatu dute. Bizikidetzaren aldeko ekimen hau Donostiako Udaleko talde guztiek bultzatu eta babestu dute eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako Bizikidetzaren Lantzen programaren barruan kokatzen da.

Foro kide guztiek prozesu osoan modu berdinean parte hartu ez badute ere, prozesuak bera bost urteko iraupena izan du. Urte luzeetan hilabetez behingo maiztasuna zuten bi ordutako saioetan elkarriketa zintzoak eta sakonak bizi izan dira. Foroaren helburu nagusiak:

1. Iraganari buruzko ondorio partekatu batzuk lortze aldera bakoitzaren biografia pertsonalak segurtasun eta konfiantza giro batean partekatzea. Ikasitakoa berreskuratuz, batzen gaituena identifikatzea eta partekatzen ez duguna ezagutu eta ulertzea.
2. Erreferentzia berriak sortzen lagunduko duten gakoak identifikatzen saiatzea, pistak emango dizkigun "txuletario" bat eraikitzea.
3. Taldearen esperientzia eta ondorioak ezagutaraztea.

Helburu horiek gidari izanda, gertatutakoari eta gertatzen ari denari aurre egitean, taldeko kide bakoitzak bere bizi biografia partekatu du, markatu gaituzten gertaerak nabarmenduz. Hitz egin dugu diktadura frankistatik hasita, jarraitu dugu trantsiziotik, demokrazia ezartzetik eta gaur egunera iritsi gara. Bilatu ditugu hautatutako unek taldeko kide bakoitzean sortu dituzten inpaktu emozionalak eta hausnarketak; sentimenduak, beharrak, une bakoitzeko gogoetak eta jarrerak.


Halako prozesuak edozein herritarrek egin ditzake, baina, izan ere, ez da denok egin beharreko zerbait. Norberak libreki hautatu behar duen bide bat izan behar du, eta horretan norberaren espektatibak eta prozesuaren helburuak hasieratik uztargarriak diren argitzeak lagundu dezake.

Metodologiaren sistematizazioa modu xehe eta konkretuan egin nahi izan dugu. Asmoa "hau da egin beharreko bidea" esan baino, "hauek dira guk baliaturiko tresnak" esatea izan da. Gure bileretan hainbat alditan aipatzen genuen txuletarioa, tresna multzo bat bezala irudikatu dugu. Beraz, sistematizazioa tresna kutxa bat bezala ulertzen dugu.

Tresna kutxa

Egindako prozesuaren metodologia sistematizatzerakoan, tresna kutxa bat irudikatu dugu, hiru kajoitan banatutakoa. Hauek dira aurrerantzean garatzen diren hiru kajoiak:

1. Zerk lagundu gaitu hitz egiten? Elkarriketa posible izan zedin elkarrekin baldintza egoki batzuk eraiki ditugu. Partekatutugun joko arau edo printzipio batzuk izan dira laguntzaileak.
2. Kriaiak eta blokeoak. Eta aurrera atera beharra.
3. Landutako bideak gertatutakoa hobeto ulertzeko.



1. KAJOIA.

Zerk lagundu gaitu hitz egiten?

Elkarriketa posible izan zedin elkarrekin baldintza egoki batzuk eraiki ditugu. Partekatutugun joko arau edo printzipio batzuk izan dira laguntzaileak.

1. Prozesuari berari dagozkionak.

- Errespetua. Errespetua eta desadostasunak azalarazteko aukera.
- Askatasuna. Erabakitze noraino? ireki eta itxi gure bizipenak.
- Izaera. Prozesu izaeraz jabetu eta berau bizitzeko modu desberdinak errespetatu.
- Metodologia. Iritzi eta pentsamenduetatik harago, alde emozional edota sentitibotik aritzeko aukera eman du. Horrek "arrazoia izan ala galdu" blokeatzailea uxatzen lagundu duelarik.
- Malgutasuna. Sartu-irteeren naturalizazioa. Foroko kideok askatasuna sentitu dugu foroan sartu, irten eta bueltatzeko. Bakoitzaren eta taldearen denborak errespetatu ditugu. Malgutasun hori denboren kudeaketarekin uztartu behar da.

- Konfidentzialtasuna. Horrek kideen arteko konplizitate bat eraiki du. Foro kideok ezin genuen aipatu nortzuk ziren partaideak, ezta bertan hitz egindakoa ere, forotik kanpo. Horrek askatasun gehiago ematen zuen hitz egiterakoan, kanpotik presiorik etorriko ez zirela ikusteak segurtasuna ematen zuen...

2. Bakoitzaren jarrerari dagozkionak.

- Nahia eta borondatea oso garrantzitsuak izan dira orokorrean. Bakoitzaren konpromisoan oinarritutako prozesua da. Konpromisoak bilakaera bat izan du, gizartearekiko atxikimendua eta konpromisoa izatetik, taldearekikoa ere izatera pasa da.
- Zintzotasuna (norberarekiko eta taldearekiko) derrigorrezkoa da. Pertsona bakoitzari eman behar zaio ahotsa, inor ez da inoren ordezkari.
- Elkar zaintzeko desioa eta erabakia. Momentu txikien eragina kontutan hartuz eta "lupa afektiboa" erabiliz.
- Onartu mingarriak izango diren momentuak izango direla, eta horiek kudeatzeko prest egon, eta behar duten denbora eskaini.
- Momentu batzuetan terapia moduan erabili ditugu bilera asko. Taldea terapia talde bat izan ez bada ere, bertan bizitutakoa, neurri batean, norberarentzat ere lagungarria izan da. Bertan, gure posizioak, ibilbideak, jarrerak, jarduera, sentimenduak, beharrak... errepasatu eta antolatu nahi genituen. Entzutea eta hitz egitea biak dialektikoki erabili ditugu.
- Taldeko zenbait partaideek alde zuzenetik elkar ezagutzeak ez du eragin ezkorrik izan orokorrean; kasu gehienetan elkar ezagutu bai, baina konfiantzako harremanik ez zegoelako. Dena den, Foroa hiri batean gauzatu izanak ere horretan eragin du; behar bada herri txikietan, non agian sakonago eta hurbilago ezagutzen dugun elkar, talde kideek elkar ezagutzeak talde dinamikan eragin dezake. Kontutan hartzekoa.
- Konpromisoa...

3. Azpiegiturari dagozkionak.

- Biltzeko tokia garrantzitsua da eta jarduna baldintza dezake. Talde honen berezitasuna izan da, foroko zenbait kideri esker, tokia modu autonomoan kudeatzeko aukera izan dugula. Baina jakinda talde guztiek ez dutela aukera hori, taldea sortzen duen erakunde publikoak toki txukun eta atsegin bat eskaini beharko luke, horrek asko laguntzen du talde giroa sustatzen.
- Espazioaren egituraketa. Gure lehenengo bilerak mahai baten bueltan izan ziren, taldeak hala behar zuelako. Momentu zehatz batean, biografiak partekatzen hasi ginenean, mahaia kendu eta aulkiz osaturiko zirkulu batean elkartzen hasi ginen.
- Espazio informalak garrantzitsuak izan dira. Afariek lagundu digute.

4. Erreztatzailea eta erakunde sustatzailea.

- Sustatzailea. Udalarekin edo erakunde publiko bultzatzailearekin harremana mantendu behar da. Era formalean egitea komeni da. Gure kasuan, erreztatzaileak mantendu du harreman hau, taldearen ibilbidearen berri emanez. Behin bakarrik hartu genuen parte taldekide batzuek Udaleko Giza Eskubideen Batzordean ohiko bilera batean. Nahiz eta taldea erakunde publiko batek sustatuta izan, harremana manten-

tzearen ardura eta interes nagusia taldearena da, taldeari dagokio harreman horretan tira egitea era aktiboan.

- Erreztatzailea. Bere papera funtsezkoa da, determinatzailea. Gure kasuan eragin aparta izan du; hainbat momentutan (bereziki biografiak papelografoetan jasotzen zituenean) laguntzaile baten beharra garbi ikusi dugu. Momentu horietan idazkariaren papera hartzen zuela ematen zuen, eta ez horrenbeste prozesuaren erraztatzailearena, biak batera egitea oso zaila zen.

2. KAJOIA.

Krisiak eta blokeoak. Eta aurrera egin beharra.

Prozesuan izan dira krisi edo blokeo bezala bizi izan ditugun momentuak eta egoerak. Bidean atzeraka ari ote ginen edo aurrera egiteko gai ez ote ginen sentipena eragiten ziguten uneak. Egoera hauek hiru mailatan izan dira:

- Pertsona mailan. Horrela, batzuetan izandako bizipenek edo momentuko egoera pertsonalek zaila egiten zuten halako espazio batean jardutea.
- Prozesuak berak eraginda. Prozesuaren izaerak ere eragina zuen gudan, entzumen zein zintzotasun ariketa honek gure bizipenak azaleratzea eta gure ikuspegi nahiz egiak zalantzatan jartzea edo osatzea eragiten zuen neurrian.
- Testuinguruaren eraginez. Testuinguruak ere bere eragina zuen, taldea ez baitzen uharte bat, eta bertan oso bizirik ziren gaiak genituen mintzagai.

Perspektiban, zenbait krisi edo blokeo egoera aurrera egiteko “mugimendu” uneak ere izan daitezke.

Kontutan hartzekoak

- Prudentziaren geruza. Kontu handiarekin ibili gara hitz egiterakoan. Elkarrekiko ezagutza sakondu ahala, hobeto jabetzen ginen zerk mindu zezakeen eta, “alferrik ez mintzeak” pisua izan du gure artean. Elkarrekiko zaintza bezala ulertu badaiteke ere, blokeo egoera batera eramateko arriskua ere eragin dezake. “Elkarri alferrik ez mintze” horrek taldean gai konplexu nahiz gatazka-tsua ez izendatzera bultzatu zezakeen. Beldur hori gure askatasuna mugatzera ere iritsi zitekeen.
- Berez, orain perspektiban ikus dezakegu, mingarriak edo ezerosoak izan diren zenbait gaik edo eskaerak, nagusiki krisi bezala bizitu baditugu ere, beste urrats bat ematera bultzatu gaituztela. Egoera ezeroso edo mingarri horri erantzun behar genionez irtenbide bat bilatzera bultzatu gaitu.
- Krisiak edo blokeoak talde guztiarenak edo norbanako batzuenak izan dira. Batzuetan, talde kide batek bere bizitzan izandako jokaerek eragina izan dute; beste batzuetan, kanpoko testuinguruak ere pisua izan du foro kideengan.
- Helburu zehatz batzuen beharra eta horiek gogora ekartzea. Hainbat momentutan galdu egin ditugu, eta ondorioz, baita foroak guretzat izan zezakeen zentzua ere. Ibilbidearen hasieran, denon artean adostutako helburuak noizbehinka gogortzea komenigarria da.
- Objektibotasuna eta subjektibotasuna uztartu beharra. Gertatu denaren eta gertatu dela sentitu dugunaren arteko uztarketa.

- Ibilbidearen bukaerari eta esperientzia sozializatzeko moduari beldurra. Bertigo handiko bi une izan dira. Prozesua ixterakoan, egindako ibilbidea eta lortutakoa begiratu ondoren, sentsazio nagusia hau izan daiteke: “horrenbeste esfortzu honetarako?” Hain inplikaturik gaude, ezen perspektiba galtzen baitugu. Nola aurkitu ahots guztientzako modu egokia?
- Momentu honi dagozkion beste beldur batzuk: ez da ulertuko, ez da nahikoa izango, espazio konfidentzial batetik agerikora pasatzeko bertigoa...
- Bukaera aldean, bizitutako prozesua kontatzeak garrantzia hartzen du, baina nola? Baina hau ere prozesuaren parte bat da. Guk dokumentala egiteko aukera izan dugu, foro bakoitzak bere bideak aurkituko ditu. Hala ere, bada, gure ustetan, baztertu daitezkeen formula bat: prentsaurrekoa... horrek ez dio bizitutakoari erantzuten.
- Aspertzea, nekea... topatuko ditugun oztopoak. Nola gaingitu eta nola jarraitu? Sentimendu horiei tokia eman behar zaie, aitortu eta horrek eragiten duenaz hitz egin. Beti gertatzen da, normala da.
- Taldearen osaketa eta aniztasunaren beharra. Ahalik eta talderik anitzena osatu beharrak taldekide berriak gehitzera eramán gintuen, taldea dagoeneko martxan zela. Horrek, zenbait kasutan, bizipenak berriz partekatzea ekarri zuen eta, beste aldetik, taldekide “berriek” prozesua osotasunean bizitu ez izanaren sentsazioa, “zerbait galdu zutelako ustea” izan zuten. Ondorioz, denbora pasa behar izan genuen kideen arteko konfiantzak lantzeko eta gure artean berriz ere egokitze. Gomendioa hau litzateke: hasieratik aniztasunik zabalena bermatzea, nahiz eta bidean gorabeherak gerta daitezkeen eta guk bizitako egoera berara iritsi.
- Taldea egonkortzeak garrantzi handia du zalantzarik gabe, eta prozesua bera baldintza dezake.
- Ausentziak. Taldeko kide bakoitzak taldeaosatzen du, beraz denak dira garrantzitsuak. Baten bat bilera batera ez badator edo taldea uzten badu, horrek pisua du taldean. Berarekin bizitakoa prozesuan txertatua gelditzen da, ez dagoenean ere presente sentitu daiteke. Ausentziak zerbaiten seinale edo ondorio izan daitezke, beraz, arreta jarri behar zaie.
- Iraupena. Talde guztiak eta bilakaera guztiak desberdinak direnez, ezin dugu iraupen zehatz bat aurreikusi. Hala ere, bi ikasturte baino gehiago luzatzea desegokia izango litzateke.

3. KAJOIA.

Gertatutakoa hobeto ulertzeko landutako bideak

Modu arrazional batean hasi baginen ere, emozio eta bizipenak partekatzeak indarra eta garrantzia izan zuen gure ibilbidean. Hala ere, diagnosi arrazionalak egiteko denbora hura ere beharrezkoa izan zen, emozioen bidera saltoa emateko.

Gure bizipenak nola partekatu eztabaidatu genuen. Alde batetik, gertatutako guztia osoki eta sakon jasotzea proposatu zen. Proposamen honen aurrean bakoitzak bere bizipenak edo biografia partekatzeko proposamena luzatu zen. Bigarren proposamen

horrek ez zuen gertatutako guztia jasotzea bilatzen, baizik eta bakoitzak partekatu nahi zituen bizipen horiei tokia ematea.

Azkenean, bigarren bide horri ekin genion. Perspektiban ikusita, lehenengo bidea hartu izan bagenu, behar bada debateetan korapilatuko ginen eta ez genuen emozioen eremura saltorik egingo.

Ez dugu gertatutakoaren analisi sozial edo historiko bat egin, norberaren biografieta-tik abiatu gara eta bertan esandakotik eraiki dugu.

3.1. Gure biografiak partekatzen


Gure biografien kontakizunari ekiteko, abiapuntu bezala, printzipio edo konpromiso batzuk adostu genituen. Hasiera batean, ez genuen oso argi ikusten horien beharra eta bai eragiten zizkiguten zailtasunak, baina perspektiban, lagungarriak izan direla ikusi dugu. Hona hemen horietako batzuk:

- Bakoitzak bere denbora zuen, hori errespetatzen zen. Ondorioz, bilera batean bi edo hiru pertsonak hitz egiten zuten, bidea luzatuz. Baina bakoitzari behar zuen denbora ematen zitzaion. Gutxienez 30 minutu.
- Bakoitzak hautatzen zuen zer kontatu eta zer ez, zerk izan zuen bere bizitzan garrantzia edo berezko eragina. Bakoitzak nahi zuena edo behar zuena kontatzen zuen. Besteei ulerrarazi nahi genien horixe aipatzen genuen, norberak ere nondik entzuten zuen jakinarazteko.
- Bestearen errelatoa errespetatu egiten zen. Gure jarrera entzundakoa jasotzea zen, ez arrazioa bilatu edo oker zegoen hala ez adieraztea.
- Bakoitzaren askatasuna eta adosturiko konpromisoak uztartu ditugu. Entzumen ariketa sakona bizi izan dugu.
- Debatea eta entzumena bereizi ditugu. Besteen bizipenak entzuterakoan ez ginen eztabaidan sartzen. Entzutea eta ulertzea ez da onartzea edo partekatzea.
- Isiltasunak eta autokontrola kudeatu behar izan ditugu, emozioak mugitzen zirenean batez ere.
- Kontakizunen zintotasunak norberarena irekitzen lagundu zuen. Besteak egin badu, nik ere nire burua irekiko dut.

Elkarrizketa modu honek zenbait zailtasun ere eragiten ditu.

- Eztabaidan ez sartzea ez da erraza. Zaila egiten zen zenbait gertaera ez zirela aipatzen ikustea.
- Zaila zen bestea entzundakoa faltan botatzen zen horretaz ez galdetzea.
- Gogorra zenbait gauza entzutea.

Denbora lerroa baliatuz, foro kide bakoitzak bere biografia kontatu zuen eta bizipen guztiak idatzi genituen. Ondoren, papelografoetan jaso genituen. Papelografoak partetan itsasten genituen paperak ziren, kronologikoki jarrita, hamarkadaka (gehienetan), eta bertan bakoitzak kontatzen zuena idazten genuen. Berehala maila eta izaera oso desberdineko gertakizunak kontatzen genituela ohartu ginen. Guztion biografiak partetan zeuden, puntu amankomunak eta desberdintasunak begi bistan, hutsuneak eta balorapen desberdin edota kontrajarriak hortxe zeuden. Kide bakoitzaren biografia jasotzerakoan gertatutakoaren argazki bat osatu genuen.



Konturatu ginen bazirela geruza desberdinak. Geruzen ideia hasieratik zetorren, orduan geruza soziala, politikoa eta pertsonala irudikatzen genituen. Intuzio horretatik abiatuz, ondorengo praktikak ideia horren balioa egiaztatu zuen.

Papelografoetan idatzitakoa ordenatzea, nolabait uztartzea izan zen hurrengo pausua. Denoi tokia emanez eta bizipenak elkarren artean harremanetan jarritz. Horretarako talde txiki batek, papelografoetan jasotakoa “dokumentu” batzuetara pasa zuen eta han geruzen kodigoa zehazteari ekin zion.

Hona hemen ondoren irudikaturiko mapa mentaletan jasotako geruza bakoitzaren kolorea eta esanahia:

Berdea

Ekintza bortitza, eragin orokorrarekin.

Berde bizia

Ekintza bortitza, mehatxu edo erasoak. Eragin hurbilarekin.

Horia

Hausnarketak, inflexio puntuak, jabetzea.

Gorria

Emozioak, sentipenak, sentsazioak edo emozioez hitz egiten duten hausnarketak.

Urdin iluna

Egoera baten aurrean izandako erantzunak edo mugimenduak. Beste gertakari edo testuinguruak eragindako egoerak.

Urdin grisao

Hurbileko eremua: familia, lagunak. Gertakari orokorren eragina hurbileko eremuan edo hurbileko eremuan bizitako egoerak. Gertakari batek izandako eragin pertsonala.

Morea

Testuinguru politikoa.

Bioleta iluna

Hurbil edo lehenengo pertsonen bizitako gertakizun edo egoerak.

Ondoren eta koloreen kodigoa baliatuz, mapa mentaletan bizipen guztiak -izenik gabe- elkartu genituen. Kontakizun bakoitzean aipaturiko gertaera, gertakizun, emozio eta hausnarketak kolore desberdinetako geruzetan irudikatu genituen. Gertatutakoaren argazki zabal bat egin genuen. Bakoitzak bizi zuena ukaezina zen. Entzundakoa ez zen zalantzatan jartzen, nahiz eta ez partekatu. Arrazoia ematea edo ukatzea ez zen helburua, ulermena eta denari tokia ematea baizik. Ulermena eta onarpena bereizi behar dira prozesu honetan.

Mapetan denon biografiak eta sentimenduak jasotzen ziren, nahiz eta kontrajarriak izan tokia ematen zitzairen. Ez zen adierazi beharrik zeinek esan zuen zer.



3.2. Kanpoko ekarpenak

Kanpoko ekarpenak, hizpide orokor bezala, edozein prozesutarako baliabide oso interesgarriak eta aberasgarriak dira, talde barruan ematen diren hausnarketak elikatzen dituen neurrian.


Gure kasuan, momentu batean taldeak bere ikuspegia zabaldu nahi zuela erabaki zuen eta horretarako aukerak eman ziren. Ideia ona iruditu zitzaigun gai zehatz bati loturik kanpoko lagun batzuen parte-hartze puntuala bilatzea. Gainera une horretan kide berrien zain geunden.

Taldean indarra zuen gai bat lantzeki ekin genion: erabakiak hartzeko unean, zenbait hautu egiteko unean motibazioek izandako pisua. Alegia, honako galderak erantzun nahi genituen: zergatik pertsona hori sartu zen ETAn?, zergatik utzi edo zergatik jarraitu egin zuen? Gai hau lantzeko erakundeko kide izandako zenbait pertsonarekin solasaldi batzuk antolatu genituen. Gurean, eragin sakona izan zuten zentzu zabal batean.

Guk izandako esperientzia zehatza aztertzerakoan, iruditu zitzaigun bukatu gabe utzi genuen ariketa bat izan zela; ez genuen aurreikusitako bide guztia jorratu eta, honez gain, behar bada, ez genuen ondo neurtu taldean izango zuen eragina. Testigantza gogorak eta benetakoak izan ziren, hainbat unetan entzuteko zailak.

3.3. Gure bizitzako fonoteka

Foro kide bakoitzari, bere bizitzan pisua izandako abesti bat hautatzeko eskatu zitzaion. Gure geruza soziala azaleratzen lagundu zigun, abesti bakoitzak testuinguru jakin batean kokatzen gintuen; testuinguru eta garai batean. Fonotekan agertzen ziren abestiek -papelografoek bezala- lagundu ziguten errealitate eta garai beraren ikuspegi desberdinak, partzialak, mugatuak... elkarren ondoan azaleratzen.



BIDEA ERAIKITZEN
DONOSTIAKO HERRITAR FOROA

Dokumentala



Antolatzailea:



Babeslea:

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA
ORAIN**
Es futuro